

2016/17 IKASTURTEKO IRUNGO FAMILIETARAKO DIRULAGUNTZAK ETA MERKATARITZARAKO LAGUNTZAREN DEIALDI ETA OINARRIAK

XEDEA

1.- Irungo Udalak laguntzen deialdia egiten du Derrigorrezko Hezkuntzako maileri dagozkien ikastaroetako edozeinetan 2016/17 ikasturtean matrikulatutako ikasleentzat Irungo saltokietan eros daitezzen eskolako materialerako.

ARAUDI ERREGULATZAILEA

2.- Deialdi honen xedeko laguntzak emateko, honako araudi hau bete beharko da:

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamendua onesten duena.
- Irungo Udaleko Aurrekontua Egikaritzeko Araua.
- Oinarri hauetan eta Deialdian jasotzen diren klausulak.

ARAUBIDE APLIKAGARRIA

3.- Konkurrentzia ez-lehiakorreko eta banakako ebaluazioko araubidezko deialdi irekiaren bidez izapidetuko dira laguntzak.

AURREKONTU KREDITUA ETA DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

4.- Laguntzak 2016ko ekitaldiko Udal Aurrekontuko A-282/2016 gastu baimena kargura emango dira, gehienez ere 200.000 €-raino.

5.- Ikasle bakoitzeko banakako zenbatekoa 1. atalean 100,00 €-ko zenbateko maximora iritsiko da; 2. atalean, 75,00 €-ko zenbateko maximoa, eta 3. atalean, 50,00 €-ko zenbateko maximoa.

6.- Kreditu esleitua nahikoa ez bada onuradun izateko betekizunak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko, Udalak deialdi honetarako jarritako baliabideak zabaltzea egin ahal izango du.

Nolanahi ere, aldaketa horretarako, ez da beharko oinarri berriak onestea eta argitaratzea edo beste deialdi bat egitea.

LAGUNTZA LORTZEKO BETEKIZUNAK

7.- Eskaeraren unean, honako betekizun hauek bete beharko dituzte Famili Unitateak:

- Laguntzaren xedeko adingabeak eta laguntza hori eskatzen duenak Irungo helbide berean eskaera egin baino lehen erroldatuta agertu beharko dute.
- Adingabeak 1999 eta 2010 bitartean (biak barne) jaioa izan beharko du.
- Diru-laguntzaren eskatzaileak diru-laguntza eman nahi zaion adingabearen aita, ama edo tutorea izan beharko du.

- Diru-laguntza eman nahi zaion adingabeak Derrigorrezko Irakaskuntzako maileri dagozkien 2016/17 ikasturteetako batean matrikulatuta egon beharko du EAeko Hezkuntza Administrazioako ikastetxe baimenduetako edozeinetan edo beste Hezkuntza Sistema batzuetako adierazitako edozeini dagokion ikasturtean, Hezkuntza Administrazioen koadro konparatiboen arabera.
- Familiaren Urteko Errenta ez du gainditu behar 25.000,00 €-ko zenbatekoa 1. atalerako; edo 37.000,00 €, 2. atalerako, edo 50.000 €, 3. atalerako.
- Ezin izango dute laguntza hau jaso 50.000 €tik gorako diru-sarrerak dituzten Familia Unitateak.
- Eskararen unean, eskatzaileak faktura(k) eduki beharko ditu, edo haiek ordeztu dituzten antzeko dokumentua(k) (faktura sinplifikatua), betiere eskola-materiala Irungo dendetan erosi duela egiaztatuz, laguntzaren kopuruko edo gehiagoko balioan (BEZ barne); edo, bestela, 2016/17 ikasturteko Material Kurrikularraren eta Testu Liburuen Kudeaketa solidarioko Programako abonamenduaren egiaztagiria.
- Irungo ikastetxeek edo Irungo Guraso Elkarteek jaulkitako fakturak ere onar ahal izango dira
- Eskatzaileak kontu-zenbaki bat aurkeztu beharko du, laguntza han ordaindu ahal izateko.
- Eskatzaileak edo kontuaren titularrak eta aurkezten den fakturaren bezeroak berbera izan beharko dute.
- Familia Unitateko kideek ezin izango dira sartuta egon Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 2. eta 3. ataletako debeku bakar batean ere.

DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN GASTUAK

8.- Diruz lagundu ahal izango diren gastuak eskola-materialak erosteagatik sortuak izango dira, eta betiere Irungo dendetan edo ikastetxeetan erosiak 2016ko ekainaren 21tik irailaren 30era bitartean, BEZ barne. Honako hauek dira eskola-materialak:

- Idazmahaiko materiala eta suntsikorrak: lapitzak, boligrafoak, ezabatzekoak, klipak, txorroskiloak, erregelak, eskuadrak, kartaboiak, transportadoreak, rotringak, koadernoak, folioak, kontsumigarri informatikoak.
- Material ez suntsikorra: Paper-zorroak, sailkatzaileak, artxibadoreak, estutxeak, kalkulagailuak, konpasak, eskolako bizkar-zorroak, testu-liburuak (Testu Liburuen eta Material Kurrikularraren Kudeaketa Solidarioko Programakoak barne), bereizgailuak,
- Eskola-jarduerarako beharrezkoak diren jantziak: eskola-uniformea (eskolako mantalak barne), betaurrekoak edo lentillak (lente zuzentzaileak), arropa eta kirol-oinetakoak gorputz-heziketa egiteko.
- Eskulanetako elementuak, Arte Hezkuntza, Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa, Teknologia edo Musika (argizariak, olioak, margoak, pintzelak).
- Eta oro har, ikastetxeak zirkularrez berariaz eskatutako edozein material.

9.- Kanpo geratzen dira eskola-kuota, arropa eta oinetako orokorrak, eguzkitako beturrekoak, kirol-diziplina bateko kirol-material espezifikoak, ekipo informatikoak, hardware eta software.

ESKAEREN AURKEZPENA ETA EPEAK

10.- Eskaerak uztailaren 1tik irailaren 30era bitartean aurkeztu beharko dira bitarte telematikoz, Udalaren Egoitza Elektronikoen bidez (www.irun.org). Baliabide telematikoak erabiltzea ezin duten eskatzaileek presentzialki SAC-eko bulegoetan (San Martzial karrika, 2) egingo dute

11.- Eskaera horretan, diru-laguntzaren xedeko adingabeari buruzko datuak adieraziko dira, honako hauek barne: Izena, bi abizen, helbidea, jaiotze-data eta zein ikastetxetan ikasten ari den. Eskatzaileari buruzko datuak, honako hauek barne: Izena, bi abizen, identifikazio-zenbakia (NAN, AIZ edo pasaporte), helbidea eta diru-laguntza sartu behar den kontu korrontearen zenbakia.

12.- Era berean, eskola-materialeko gastua egiaztatzeko fakturari buruzko datuak ere adieraziko dira (hornitzailearen IFK/IFZ, data, fakturaren zenbatekoa eta diruz laguntzeko zenbatekoa), eta Udalak laguntza hori lortzeko betekizunak egiaztatzen dituzan beharrezko diren baimenak ere bai.

13.- Espedientearen izapidetzaldian, Udalak dokumentuak eska ditzake, laguntza eman ahal izateko baldintzak egiaztatzeko, bereziki Familia Unitatearen diru-sarrerari eta osaerari buruzkoak, eskolaratzeari buruzkoak eta eskola-materialaren gastua justifikatzekoak. Fakturak Irungo Udalean aurkeztu beharko dira, HAZeko bulegoetan bertan (San Martzial 2) edo, bestela, telematikoki, Udaleko Egoitza Elektronikoen bidez, eskatzaileak bere “IRUN Txartelean” dagoen ziurtagiri aurreratuarekin edo aitortuta dagoen beste edozein ziurtagirirekin (NANe, IZENPE, etab.) digitalki sinatutako dokumentu elektronikoz bezala. Nolanahi ere, eskaerak egiteko epea amaitu baino lehen entregatu behar dira.

14.- Emandako datuetan faltsukeria agertuz gero, ukatu egingo da laguntza, edo itzuli egin beharko da dagoeneko ordainduta balego, eskatzaileak sor litzakeen erantzukizunetatik eta hartatik sortutako zigorretatik aparte.

15.- Oinarrietan aurreikusitako betekizunak betetzen direla edo ez direla betetzen egiaztatzen ondoren, onetsi edo ukatu egingo du Erabakitze Organoa, eta, hala badagokio, laguntzaren zenbatekoa ordainduko da.

16.- Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari.

ERABAKITZEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEAK

17.- Laguntza horiek Erabakitze eta Jakinarazteko epe maximoa sei hilabetekoa izango da, eskaeren epe amaitu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

18.- Jakinarazpenak bide telematikoz egingo dira: Irargarki-taularen edo web orrialdearen bidez (www.irun.org). Diru-laguntza eskaeran adierazitako kontuan ordaintzen denetik hilabete igarota, eta onuradunak uko egin ez badio, ondorio guztietarako jakinarazita dagoela ulertuko da.

19.- Deialdi honetako baldintza guztiak betetzen dituzten eskaerak ebatziko dira. Bestela gertatuz gero, eskatzaileei hamar eguneko epe bat emango zaie dokumentu hutsuneak konpontzeko edo baldintzak betetzen direla egiaztatzeko edo, hala dagokionean, eskatzaileak egoki irizten dituen alegazioak egiteko, eta hori guztia eskaera ebatzi baino lehenago.

20.- Aipatutako epe amaitzen denean, uko egintzat hartuko dira antzeman diren ez betetzeak dituzten eta alegaziorik aurkeztu ez dituzten eskaerak.

FAMILIAREN URTEKO ERRENTA

21.- Laguntza eskatzen den adingabeko helbide berean bertakoen osotasunak 2015 ekitaldi fiskalean lortutako dirusarrerak guztiak, PFEZaren ondoreetarako, errenta salbuetsiekin batera, Familiaren Urteko Errenta da, adingabeko helbide berean bizi eta familia-unitate desberdina diren salbuetsita baldintza hau errentamendu-kontratua propioaren bitartez justifikatuta.

22.- Familiaren Urteroko Errenta kalkulatzeko formula, honako hau da:

JARDUERA EKONOMIKOAREN ETEKINAK (<ACT-RD.TOTAL>) +
+ HIGIEZINAK EMANDAKO ERRENTAK (<RENTAS.INM.ARRE>) +
+ KAPITAL HIGIKORRAREN ETEKINAK (<RENTAS-CMOB>) +
+ ONDARE IRABAZIEN ETEKINAK (<RENDIMIENTOS-PA>)+
+ LANAREN ETEKINAK (<REND.TRAB.TODAS).

23.- Laguntza eskatzeko unean Familia Unitatearen inguruabarrak egin beharreko PFEZaren likidazioa egin zen uneko berberak ez badira, Familia Unitatea eratzen duten kideen datuak bakarrik kontuan hartuko dira eskaeraren unean. Kasu horretan, PFEZren azken kanpainari dagozkion Familia Unitatearen datu ekonomikoak proportzionalki hainbanatuko dira Familia Unitatearen kide guztien artean, jasotzailea zein izan den alde batera utzita, Horren xedea da Familia Unitatearen diru-sarrerak zeintzuk diren zehaztea, egiaztatutako inguruabar berriekin bat etorritz.

24.- Irungo Udalak ofizioz kontsultatuko du informazioa Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, bi administrazioen artean zerga-alorrean informazioa elkarri lagatzeko sinatua duten Lankidetzaren bitartez.

Zerga-datuak erabiltzeko eta lagatzeko, Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan eta Gipuzkoako Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauan aurreikusitako mugak bete beharko dira. Azken horren 92.1 artikuluan, hor agertzen baita zein kasutan utzi daitezkeen zerga-datuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutan titularraren baimen beharrik gabe, honako hauek jasotzen dira:

- “b) Beste zerga-administrazio batzuekin elkarlanean aritzea, beren eskumenen alorrean zerga-obligazioak betetzeko ondorioetarako”.
- “d) Administrazio publikoekin lankidetzan jardutea, zerga-delituaren eta fondo publikoen edo Europar Batasunaren karguko laguntzak edo diru-laguntza lortzeko edo jasotzeko iruzurraren aurkako borrokarako.”

25.- Gipuzkoako Foru Lurraldean zerga-daturik izan ezean, eskatzaileari beharrezko dokumentazioa eskatu ahal izango zaio, 2015eko ekitaldiko Familia Unitateko Errenta zehazteko, besteak beste, eskatzailearen edo Familia Unitateko beste kide batzuen bizitoki den lurraldeari dagokion Zerga Aginteak emandako zerga-datuak, Gizarte Segurantzako Lan Bizitzaren txostena, Nominak, laguntzen eta diru-laguntzen egiaztatgiriak edo, baita Diru-sarren Zinpeko Adierazpenak ere.

ORGANO ESKUDUNAK

26.- Irungo Udaleko Hezkuntza Arloko Zerbitzu Teknikoei dagokie Oinarri hauek araututako lagunzei dagokien espedientea agintzea eta instrukzioa egitea.

27.- Alkatetza-Lehendakaritzari dagokio Oinarri hauek arautzen dituzten lagunzei dagokien espedientea Ebaztea.

ONURADUNEN OBLIGAZIOAK

28.- Fakturak dokumentu elektronikoa bezala aurkezterakoan, eskatzaileari dagokio laguntzaren xedeko gastua justifikatzen duten eta eskaeran identifikatu diren antzeko dokumentuak edo fakturak zaintzea. Instruktoreak faktura hori aurkezteko eska dezake, fiskalizatzeko fasean edo espedientea irekita dagoen indarraldi osoan zehazten den unean eta moduan.

29.- Eskatzaileak arduratsu zaindu beharko du adingabea egunero joaten dela ikastetxera eta baita ikasle den aldetik bere betebeharrak betetzen dituela ere.

BATERAGARRITASUNA

30.- Laguntza hauek beste edozeinekin bateragarriak dira, baita xede berekoekin ere.